

Ordizia


eginez

Udal aldizkaria • Revista municipal • 2012ko apirila • 4 zk.



Martxan da Oianguko parte hartze prozesua

En marcha el proceso participativo de Oiangu



Presupuesto municipal
ajustado, social y ambicioso

Ongizate kontseilua eta
zerbitzuak indartzen

Irakurketa tailerra
literaturaz goatzeko

Errugbiko Kopa Finala,
urtetako lanaren saria





Udal aurrekontu arduratsua, soziala eta aurrera begirakoa

Udalak martxoko Osoko Bilkuran onartutako aurrekontua arduratsua da, aurreko agintalditik datozen karga eta erabakiei erantzuna ematen dielako. Soziala, gizarte politiketan, berdintasunean, migrazioan, euskaran. . . ahalegin bereziak

egiten dituelako (bai ekimen eta baita diru partidetan ere). Eta aurrera begirakoa, krisi egoeran egonagatik, apustu egiten dutelako Ordiziak dituen beharrei erantzuteko egitasmo berri eta itxaropentsuak martxan jarritz.

Zailtasunak prestaketan

Hainbat zailtasuni egin behar izan zaio aurre aurrekontua prestatzeko. Hiru nagusienak:

- 1.- Sarreraren murrizketa Fondo Foraletik eta Jaurlearizatik.
- 2.- Aurreko agintaldiko erabakien kargak, bereziki Majoriko auziak eragindakoa, eta langileen lanpostuen balorazioak eragindakoa.
- 3.- Espainiar gobernuaren dekretua kontratazio berriak galaraziz (lan sustapenean hainbat asmo bertan behera uztea eragindu).

Aurrekontua prestatzeko jarraitu diren irizpide nagusienak

- 1.- Gastu arrunta murriztea eta kontrolatzea.
- 2.- Lehenetsitako hainbat arlotan, sarrerak murriztuzkoak izan arren, aurreko urteetako portzentaje eta kopuruei eustea, edota partida berriak ere sortzea. Bereziki:
 - Ongizatean eta zerbitzuetan.
 - Euskaran, berdintasunean, parte hartzean eta migrazioan.
 - Nazioarteko elkartasunerako kooperazio proiektuei aurrekontuaren %1a bideratzea. Lehengo urteko kantitate bera mantendu da behar gehien dutenei laguntzeko proiektuetarako.
- 3.- Mailegua eskatzea herriak dituen hainbat beharri aurre egiteko inbertsioetan, herria garatzen joan dadin. Horrek, zorpetzea modu arduratsu eta kontrolatuan zerbait igotzea eragingo badu ere.■

“ El Ayuntamiento ha aprobado un presupuesto ajustado, social y ambicioso

Ajustado, porque reduce el gasto corriente y exigen un riguroso control del mismo.

Social, porque prioriza las políticas sociales y mantiene el presupuesto de las mismas (bienestar social, igualdad, migración, euskara, participación...)

Ambicioso, porque aún en tiempos de crisis y disminución de ingresos presenta proyectos ilusionantes e inversiones para responder a las necesidades de Ordizia.

Tres han sido los factores fundamentales que han condicionado su elaboración. Por una parte, la disminución de ingresos. Por otra, el compromiso de hacer frente a cargas que provienen de la anterior legislatura (Majori, valoración de las funciones de los trabajadores y trabajadoras del Ayuntamiento...). Y en tercer lugar, el decreto del estado que impide nuevas contrataciones.




Izaro Intsaustik, Ogasuneko zinegotziak herritarrei aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu zien Osoko Bilkurara eraman aurretik



El equipo de Gobierno presentando ante los vecinos y vecinas el borrador del presupuesto


2010. urtetik sarrerek nabarmen egin dute behera. Udalaren sarreren ia erdia Fondo Foraletik datorrena da, eta sarrera horietan eta Jaurlaritzatik datozen sarreretan murrizketa nabarmena jasan dugu. Guztira 462.000 euro gutxiagoko sarrerek aurre ikusten ditugu. Horrek eragin izan du sarrera eta gastuen arteko marjina beherantz joatea (aurten soilik 5.000 euro pasatxo). Datu hau bereziki kontuan izatekoa da, baita datozen urteei begira ere.

Diru sarrerak eta zorpetze maila



Sarrera gastuen marjinaren bilakaera

Evolución del margen entre ingresos y gastos



Aurrekontu arruntaren sarrerak

Ingresos corrientes

SARRERAK		2.011	2.012
1. Kapitulua	Zerga Zuzenak	2.167.350	2.222.450
2. Kapitulua	Zeharkako zergak	400.000	350.000
3. Kapitulua	Tasak eta beste sarrerak	941.450	977.300
4. Kapitulua	Transferentzi korranteak	6.661.204	6.156.378
5. Kapitulua	Ondare Sarrerak	82.025	83.850
TOTALA		10.252.029	9.789.978

Mailegu eskaera eta Udalaren zorpetze maila

Solicitud de préstamo y nivel de endeudamiento

	2008	2009	2010	2011	2012
Zorpetze maila	%6.2	%5.7	%3.9	%3.3	%4?
Zorpetze maila Gipuzkoa	%6.3	%7.2	%6.1	%6.2	

Aurrezpena hain txikia izanik, Udalak apenas zuen aukerarik inbertsiorik burutu ahal izateko. Horregatik, herrian antzemandako hainbat hutsuneri aurre egitekotan, derrigor mailegua eskatu beharra izan du. Hala egin da, modu arduratsuan. Batetik, Ordizia garatzen jarraitu ahal izateko ardurarekin. Eta bestetik, zor maila kontrolatua izateko ardurarekin. ■

“ Ingresos y nivel de endeudamiento

Las reducciones previstas en los ingresos del Fondo Foral y el Gobierno Vasco (462.000 euros menos) han provocado que el margen entre ingresos y gasto corriente sea de 5.000 euros. Por ello ha sido necesario solicitar un préstamo que posibilite realizar inversiones estratégicas y necesarias para Ordizia, aún a costa de elevar el nivel de endeudamiento, siempre de manera controlada y responsable.



Murrizketak gastuetan eta lehentasunak

“Gasto corriente: reducciones y prioridades

Si bien uno de los objetivos marcados ha sido el de reducir el gasto corriente, este se ha mantenido o incrementado en los apartados correspondientes a las políticas sociales, igualdad, euskara, migración, participación y cooperación, o bien porcentualmente o en valores absolutos.

Las principales reducciones se han aplicado en las asignaciones a cargos y grupos políticos, sueldos de personal no de plantilla municipal, protocolo y publicidad, fiestas, aportación a Majori...

“Los retos principales para elaborar los presupuestos de los próximos años serán en primer lugar, continuar controlando y reduciendo el gasto corriente. En segundo lugar, en la difícil situación económica actual, fijar las prioridades estratégicas y asignar recursos para las mismas. Y en tercer lugar, potenciar la participación ciudadana en la elaboración de los presupuestos.

Hainbat murrizketa gastuetan

Hainbat arlotan gastua murrizteko saiakera berezia egin da. Esaterako, protokolo gastuetan, publizitatean, jaietan (%15-20), zinegotzien eta alderdien dietetan, Majoriri eman beharreko aportazioan (632.000 eurotik 607.970 eurora)...


	2011	2012	AURREZPENA
PROTOKOLO GASTUAK	14.250	5.000	9.250
UDALEKO PERTSONALA EZ DIREN SOLDATAK	205.040,80	173.491,78	31.549
ALDERDI POLITIKOEI TRANSFERENTZIAK	99.053,04	77.700	21.353
TOTALA	318.343,84	256.191,78	62.152

Aurrekontu arruntaren gastuak

Guztira 9.829.774 euro dira gastuetarako aurreikusten direnak (aurreko urtean 10.166.328).

2012. URTEKO AURREKONTUAK	KOPURUA	EHUNEKOA
ADMINISTRAZIOA ETA PATRIMONIOA	2.274.763,00	23,14%
HIRIGINTZA ETA OBRAK	745.490,00	7,58%
ONGIZATE SOZIALA	1.997.807,00	20,32%
PARTE HARTZEA	129.500,00	1,32%
KULTURA ETA HEZKUNTZA	1.197.025,00	12,18%
EUSKARA	175.565,00	1,79%
ZERBITZUAK	1.582.430,00	16,10%
AGENDA 21	50.420,00	0,51%
JAIK ETA FERIAK	506.026,00	5,15%
OGASUNA	358.110,00	3,64%
KIROLAK	607.970,00	6,18%
SUSTAPENA ETA GARAPENA	204.668,00	2,08%
TOTALA	9.829.774,00	100,00%

Taula honetan agertzen da arlo bakoitzak aurrekontuaren zein portzentaje eramaten duen. Kontuan izan behar da pertsonalaren gastuak ere barnean daudela.



El gráfico superior refleja el tanto por ciento que supone el gasto de cada delegación. Ha de tenerse en cuenta que los gastos de personal están incluidos en el mismo. ■

Inbertsio nagusienak

Guztira
inbertsioetarako
1.329.685 €



Principales inversiones

ARGITERIA, TRAFIKO KONTROLA, INFORMAZIO PANELAK... 34.000€

Policia Municipal, trafico, alumbrado, paneles informativos...



BILTEGIAren erosketa. 425.000€. Urtero 90.000€ gastatzen da Udal biltegien alokairuetan. Inbertsioarekin udal ondarea handitzen da eta gastu arrunta murriztuko da. Compra de apabellón para utilizarlo como almacén municipal. Se ahorrarán más de 50.000€ anuales en alquileres.



PARKEAK, LORATEGIAK, OIANGU... 28.000€.



OBRA TXIKIAK, irisgarritasuna... 205.000€. Auzoz auzoko antolamendu berriari lotuta, bizilagunek egindako proposamenei erantzutera bideratuta.

Obras menores, vías públicas, accesibilidad... Se realizarán diversas obras que responderán a varias solicitudes realizadas por las vecinas y vecinos en reuniones de los barrios.



MERKATARITZA eta AZOKAREN V. MENDEURRENA.

40.000€ promoción del comercio y V centenario de la Feria (material diverso, señalética...).



NADALen eraikina erosiko da azpiegitura kultural berrietarako. Aurten 210.000€.

Adquisición de los locales de **Cartonajes Nadal** para equipamientos culturales.



URDANETA IKASTETXEA. 108.000€. Hainbat egokitzapen egingo dira: pintaketa, argiteria aldaketa eta asfaltatze lanak.

Diversas obras en el colegio Urdaneta: instalación eléctrica, asfaltado, pintura...



MAJORI KIROLDEGIA.

123.500€. Aurreko urteetako kudeaketa desegokiaren ondorioz, aurten 123.500€ bideratu beharko dira Majoriko inbertsioetako zorra ordaintzeko (zorra ordainketa hainbat urtetan luzatuko da).


Partida para hacer frente a inversiones en Majori (consecuencia de la anterior gestión). Se hará frente a la deuda durante varios años.



OIANGURAKO ESPALOA.

57.000€. Garbiguneko obrak aprobetxatuz burutuko da.

Aceras Oiangu. La obra se ejecuta aprovechando las del Garbigune.



Aurrera begirako erronkak

- 1.- Gastu arrunta kontrolatzen eta gutxitzen jarraitzea. Honek eskatuko digu aurrekontuetan partida oso garrantzitsuak eskatzen duten hainbat zerbitzu edota proiektu berraztertu eta egokitzea.
- 2.- Estrategiko diren hainbat arlotan (ongizatea, kultura, euskara, berdintasuna, migrazioa, jasangarritasuna...) hausnarketa egin eta krisi egoeran aurrekontuetan eduki ditzakegun zailtasunen aurrean, lehentasunak finkatzea.
- 3.- Aurrekontu parte hartzaileak prestatzea, herritarrek ikuspegi globala izan dezaten eta aurrekontuetan parte aktibo izan daitezten.■

Proceso participativo de Oiangu

El Ayuntamiento de Ordizia pondrá en marcha a partir de abril un proceso participativo para decidir qué proyecto desarrollar en Oiangu. Los ciudadanos son los que tienen la última palabra, así que el Ayuntamiento dejará en sus manos la decisión. El proceso será presentado a los ordizarras el próximo 19 de abril, a las 19:00, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.

El proceso

El proceso está repartido en cuatro fases. Ahora se encuentra en la primera fase. Tras diseñar el proceso entre ciudadanos y profesionales de este tipo de procesos, la primera fase terminará con la presentación del proceso a los ordizarras.

En la segunda fase comenzarán las reuniones. Los ciudadanos se reunirán en grupos y a través de dinámicas participativas acordarán una propuesta.

Tras celebrar cuatro reuniones y poner en común las propuestas, empezará la tercera fase. Con los participantes de las anteriores reuniones se creará un grupo de trabajo, y este será el que decida la viabilidad económica, ecológica, etc. con los técnicos municipales. En esta fase se redactará el proyecto para Oiangu.

Al final del proceso, en la cuarta fase, llegará la hora de presentar el proyecto a la ciudadanía.

Reuniones

Cualquier ciudadano que tenga interés puede participar en el proceso, siempre que tenga 16 años o más.

El objetivo de las reuniones será obtener propuestas, estudiarlas, valorar la viabilidad y fijar unas preferencias. Para ello, y para no perderse en discusiones que no llevan a ningún lado, dos expertos en procesos participativos han diseñado unas dinámicas participativas.

En total serán cuatro reuniones, y se realizarán en dos horarios diferentes para que pueda participar el máximo de gente posible. Así, los días 24 de abril, 8 de mayo, 22 de mayo y 5 de junio las reuniones serán a las 19:00 y el 26 de abril, 10 de mayo, 24 de mayo y 7 de junio serán a las 15:00.

Dinamizadores

Para el desarrollo de las reuniones, en cada grupo de ciudadanos habrá dinamizadores y serán los responsables de dirigir las reuniones. Los dinamizadores serán ciudadanos. En marzo realizaron un curso y algunos de los que se formaron se harán cargo de dichas reuniones.

Límites


En los primeros pasos del proceso se han establecido unos principios básicos. En Oiangu, al ser un parque natural, siempre se respetará el medio ambiente, responderá al deseo del interés público y los ciudadanos, todos los equipamientos serán accesibles para todo el mundo, y el proyecto deberá ser viable socio-económicamente.

El Ayuntamiento cumplirá lo decidido

Los ordizarras llevan años hablando sobre Oiangu: qué proyecto y servicios son necesarios, qué medidas tomar para protegerlo, etc. Ahora, ha llegado la hora de pasar de las palabras a los hechos. Los ciudadanos han pedido ser oídos y así será, ya que el Ayuntamiento se ha comprometido a respetar y cumplir la palabra de los ciudadanos.

Además, se tratará de un proceso que reforzará el objetivo de hacer de la participación ciudadana una herramienta para el Ayuntamiento. ■

Proceso participativo de Oiangu

El Ayuntamiento de Ordizia pondrá en marcha a partir de abril un proceso participativo para decidir qué proyecto desarrollar en Oiangu. Los ciudadanos son los que tienen la última palabra, así que el Ayuntamiento dejará en sus manos la decisión. El proceso será presentado a los ordizarras el próximo 19 de abril, a las 19:00, en Barrena. 

Oianguko

parte-hartze prozesua

Oianguko parte-hartze prozesua

Ordiziako Udalak Oiangu natur parkean zer egin erabakitzeko parte-hartze prozesua jarriko du abian, apirilean. Herritarrek dute zeresan handiena Oianguen inguruan, beraz, Udalak haien esku utziko du erabakia. Prozesua herritarrei azalduko zaie apirilaren 19an, 19:00etan, Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan.

Prozesua

Prozesua lau fasetan banatuko da. Orain, lehenengoan murgilduta dago. Aurrelanak eginda eta adituekin eta Ordiziako hainbat herritarrekin prozesua diseinatuta, lehenengo faseari amaiera emango zaio prozesua herritarrei aurkeztean.

Bigarren fasean hasiko dira prozesuaren oinarri izango diren bilerak. Herritarrak taldeka bilduko dira eta, dinamika parte-hartzaile batzuen bitartez, proposamenak adostuko dituzte.


Lau bilera egin eta denen proposamenak komunean jarri eta gero, hirugarren faseari ekingo zaio. Aurreko bilerekin parte hartu dutenekin herritarren ordezkari lantaldea osatuko da eta lantalde horrek eztabaidatuko du udal teknikariekin adostutako proposamenen bideragarritasun ekonomikoa, ekologikoa eta abar. Fase honekin idatziko da Oianguerako nahi den proiektua.

Azkenean, erabakia hartuta, herritarrei Oianguen etorkizunerako proiektua zein izango den esateko garaia iritsiko da. Laugarren fase honetan aurkezpen bat egingo zaio herriari erabakiaren berri emateko eta pauso guztiak azaltzeko.

Bilerak

Interesa duen edozein herritarrek parte har dezake prozesuan, 16 urtetik gorakoa izatea da baldintza bakarra. Bileren helburua denon proposamenak jasotzea, aztertzea, bideragarritasuna baloratzea eta lehenetsunak finkatzea izango da. Horretarako, eta inora ez daramaten eztabaidetan ez galtzeko, parte-hartze prozesuetan adituak diren bi pertsonak diseinatutako dinamika parte-hartzaileak garatuko dira.

Guztira lau bilera izango dira, eta bi ordutegi desberdin jarri dira ordu batean ezin dutenek beste batean aukera izan dezaten. Hori horrela, apirilaren 24ean, maiatzaren 8an, maiatzaren 22an eta ekainaren 5ean bilerak 19:00etan izango dira eta apirilaren 26an, maiatzaren 10ean, maiatzaren 24ean eta ekainaren 7an, 15:00etan.

Ordiziako Udalak Oiangu natur parkean zer egin erabakitzeko parte-hartze prozesua jarriko du abian, apirilean. Herritarrek dute zeresan handiena Oianguen inguruan, beraz, Udalak haien esku utziko du erabakia. Prozesua herritarrei azalduko zaie apirilaren 19an, 19:00etan, Barrenan. 

Dinamizatzaileak

Bilerak aurrera eramateko, herritar talde bakoitzean dinamizatzaileak egongo dira eta bilerak zuzentzeaz arduratuko dira. Dinamizatzaile horiek herritarrak izango dira. Martxoan trebakuntza ikastaro bat egin zuten eta parte-hartzaileetako batzuk izango dira Oianguko parte-hartze prozesuan dinamizatzaile lanak egingo dituztenak.

Mugak

Egin diren lehenengo urratsetan prozesuaren printzipio nagusienak finkatu dira. Oiangu naturgunea izanik, ingurumenarekiko errespetua izango du oinarri, interes publikoari eta herritarron nahia erantzungo dio, bertan jarriko diren ekipamenduak guztiontzat izan beharko dira erabilgarri, eta bertako egitasmoa bideragarria izango da ikuspegi sozio-ekonomikotik.

Udalak erabakia beteko du

Ordiziarrek urteak daramatzate Oianguz hitz egiten: zein egitasmo eta zerbitzu behar diren bertan, zein neurri hartu hura babesteko, nola erabaki bertarako proiektuak, etab. Orain, hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia iritsi da. Herritarrek entzunak izatea aldarrikatu dute eta hala izango dira, izan ere, Udalak herritarren hitza errespetatzeko eta adostutako proiektua garatzeko konpromisoa hartu du.

Gainera, Ordiziako Udalak sustatu nahi duen eta lanerako tresna bihurtu nahi duen parte-hartze kultura indartzeko prozesua izango da.■



Imanol Iturriotz Ordiziako Euskara zinegotzia, Goierriko hainbat zinegotzi eta teknikarirekin kanpainaren berri ematen.

Errenta aitortpena euskaraz

Apirilaren 17an hasita ekainaren 25a bitartean izango da 2011 urteari dagokion errenta aitortpena egiteko kanpaina. Iaz Goierriin 23.414 pertsonak egin zuten euskaraz (%15,30). Aurten, kopuru horiek gaintzeko deialdia egin dute Goierriko Udalek eta euskararen aldeko elkarteek.

Aitortpena egiteko erabiltzen diren lau bideetan egin daiteke euskaraz.

Autolikidazio proposamena. Proposamena eta gutuna ele biz jasoko dituzu, eta, onartzeko garaian, euskaraz nahi duzula esatea baino ez duzu.

Mekanizatua. Haziendako bulegoan hitzordua eskatzerakoan, esan Haziendarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula eta eskatu euskarazko agiria.

Telematikoa. Aholkularitza zerbitzura joatean, esan aitortpena euskaraz egin nahi duzula. Internet bidez errenta programa jaitsiz gero, berriz, euskarazkoa aukeratu.

Inprimakia. Estanko zein internet bidez eskuratu eta bete euskarazko inprimakia.

Euskarak Goierriin aurrera egin dezan nahi badugu behintzat, garrantzitsua da zergadun euskaldunak aitortpena euskaraz egiteko urratsak egitea; hau da, gutako bakoitzak hizkuntza hautatzeko dugun aukeraz baliatzea. Beraz, egizu euskararen aldeko aukera.

Euskaldunok euskaraz egiten ez badugu, zeinek egingo du bai?■

Emakumeen korrika taldea



Ordiziako Kirol eta Berdintasun Sailek emakumeen artean kirol jarduerak sustatzeko korrika taldea osatzeko asmoa aurkeztuko dute. Taldearen laguntzaz gain, parte hartzen dutenek entrenatzailearen laguntza ere izango dute, eta kirol instalakuntzetan dutxatzeko aukera. Hori guztia, DO-HAINIK!!

Egitasmoaren xehetasunak apirilaren 19an emango dira, D'elikatuz zentron, arratsaldeko 19:00etan. Bertan, gainera, hainbat herritan antzeko ekimenetan parte hartu duten emakumeek beren bizipenen berri emango digute.■

“Las mujeres también corren

El próximo día 19 de abril, jueves, se presentará en D'elikatuz la iniciativa conjunta de las áreas de deportes e igualdad encaminada a promocionar el deporte entre las mujeres. La propuesta consiste en formar un grupo de mujeres korrikalaris que contarán además del apoyo del grupo, con la ayuda de un entrenador y podrán utilizar gratuitamente los vestuarios de Majori.



Bazen behin, Ordiziako liburutegian. . .

Ordiziako udal liburutegiak irakurketa tailerra antolatu du euskarazko irakurzaletasuna bul-tzatzeko helburuarekin eta euskal literaturaren alde ludikoenaz gozatzeko.

Tailerra urtarrilean jarri zen martxan, eta Irati Goikoetxea idazlea da gidaria. Denon artean erabakiko da zer irakurri, eta, ondoren, irakurrita-

koaz hitz egin eta hausnartuko da. Jardunaldi horietakoren batean liburuaren idazlea bera gonbidatzea ere badute buruan. Horrela, liburua sortzailearekin komentatzeko aukera izango da.

Aurten sei saio egingo dira, bat hilabeteko, baina aurrera jarraitzeko asmoa ere badute.■

Irakurle taldearen hurrengo zita:
Apirilak 19an, 19:00etan Barrenan.
Liburua: “Nora ez dakizun hori”. Irati Jimenez
Irakur tailerran izena emateko: Udal Liburutegian



Ongizate Kontseiluak burutu duen hausnarketa prozesuaren baitan ospatutako lan saio bat
Una de las cuatro sesiones de trabajo de los y las integrantes del Consejo de Bienestar Social

Hausnarketa eta hobekuntza prozesua Ongizatean

Ongizate arloan eta zerbitzuetan urte luzeetan herrian lan handia egin dela aitortuta, Udalak hausnarketa prozesu bat burutu du Batzordearen funtzionamenduaren inguruan. Horretarako, aholkulari batzuen laguntzaz, hogeita bost herritarrek baino gehiagok (herriko hainbat elkarte, zinegotziak, teknikariak eta herritarrak) prozesu parte hartzaile bat burutu dute.

Otsaila eta martxoan izandako lau lan bileratan, eraikuntza kolektiboaren metodologia erabiliz, hainbat ondoriotara iritsi dira.

- Kontseilua zabaldu eta kohesionatu egin behar da. Herriko dinamikak eta udaleko ekimenak elkarren osagarri izanik, subjektu guztiek elkarlanean jardun behar dute une oro: elkarreek, zinegotziek, teknikariek eta herritarrek.
- Orain artean ondo egin denari jarraipena eman behar zaio, eta antzemandako hutsuneak zuzendu. Horretarako, Kontseiluaren osaketa eta funtzionamenduan hainbat hobekuntza ezarri dira.
- Arloa hain zabala izanik, lana eraginkorra izateko lan taldeak osatu behar dira.

Ongizatearen Kontseiluan hiru azpitalde osatu dira.

Ongizateko Kontseilua bi hilean behin bilduko da, eta azpi taldeak hilean behin. Azpitaldeen eginkizuna izango da dagokion arloko herriko behar eta zerbitzuak aztertu eta hobetzeko proposamenak egitea. Honako hauek dira hiru taldeak:

• **Arrisku egoeran daudenen gizarteratzea.**

Landuko dituenak: elikagaien bankua, etxerik gabekoak, gizarte larrialdietarako laguntzak / laguntzak familiei, etorkinak zeharkakotasunetik, hainbat prestazio...

• **Menpekotasuna, ezindua eta adinekoak (BIZIGURA).**

Landuko dituenak: oro har Gizarte Ongizateko programak eta zerbitzuak, horien behar, kalitate eta asebetetze mailak. Orain artean egindako ekarpenak kontuan hartu, eta hirugarren adinekoen planari jarraipena emango dio.

• **Familia, genero indarkeria, kooperazioa eta osasuna.**

Landuko dituenak: garapenerako programak, gizarte zerbitzuen prestazio eta zerbitzuen katalogoa, genero indarkeriaren udal-protokoloa, drogomenpekotasunaren arloa, kale heziketa programa...■

“ Reorganización del Consejo de Bienestar Social

El Consejo de Bienestar del Ayuntamiento de Ordizia ha llevado a cabo un proceso de reflexión en el que han participado más de veinticinco personas. Durante el mismo se ha visto la necesidad de reforzar y cohesionar el grupo y los diferentes sujetos que participan en el mismo (diversas asociaciones, ciudadan@s, concejales y técnicas municipales). Así mismo, teniendo en cuenta los diferentes ámbitos que abarca, se crearán tres grupos de trabajo que se reunirán mensualmente: el grupo que trabajará por prevenir y atender la exclusión social; el que atenderá las necesidades de dependencias, discapacidades y personas mayores; y el grupo que trabajará el ámbito de la familia, violencia de género, salud y cooperación.



Kiroldegia jada hasia da ekainean irekiko den udako denboraldia eta kanpaina prestatzen

Badator udarekin batera, Majoriko Uda Kanpaina eta programazio berezia

Udako bazkideak ekainaren 4tik aurrera egin ahal izango dira. Udako kanpaina ekainaren 9tik irailaren 9ra luzatuko da, eta kiroldegiko ordutegia 09:00etatik 21:00etara izango da (baita asteburuetan eta abuztuan ere). Kanpoko igerilekuarena 11:00etatik 20:45ak arte.

Urtero bezala, ikastaro bereziak prestatuko dira ekainaren 25etik uztailaren 20a bitartean, eta haur zein helduek aukera zabala izango dute: igeriketa, piraguismoa, ur ekintzak, capoeira, aerobicka, gimnasia erritmikoa, arku tiratzea, zaldiketa, ping-ponga, irristaketa, multi-kirola, tenis edo padela, areto txirrindularitza, mantentze soinketa, areto dantzak, pilates, GAP power, aquagym, +60 soinketa...

Txikinentzat udalekuak ere antolatuko dira eta horietan gosari, bazkari eta zaintza ere aurreikusten da. Era berean, udan taberna zabalik egonik, igerilekuaren kanpoaldean bazkaldu zein afaltzeko aukera izango da.

Udako salneurriak / Precios verano:

Familia bazkideak / abono familiar: 147,34€

Orokorrak / individual: -18 = 60,54€

+18 = 88,93€

+65 = 66,71€

Eguneko sarrerak / diario: -18 = 3,85€

Besteak = 6,80€

Eremu urdineko aparkaldi mugatua

Udaltzaingoaren gomendioz, eremu urdineko aparkaldi mugatua ordu erditik ordubetera luzatuko da Gudarien Etorbidean, Ordizia Kalean eta Joseba Rezola Pasealekuan (tren geltokiaren ondoko aparkalekuan). Garagartza Plazan, berriz, ordu erdiko aparkaldia mantenduko da. Hilabeteko epean erreklamaziorik ez badago, indarrean jarriko da araudi berria. ■



“ Campaña de verano de Majori Kiroldegia

El polideportivo Majori está ya preparando la temporada de verano y ultimando la oferta de cursillos de este año, algunos habituales, otros novedosos. Los que tengan interés en realizar el abono de verano o apuntarse en algún curso de los que se impartirán, podrán hacerlo a partir del 4 de junio.

“ Zona azul de aparcamiento limitado

En las zonas azules de aparcamiento de Gudarien Etorbidea, Ordizia Kalea y Joseba Rezola Pasealekua (junto a la estación), el tiempo máximo se incrementará de media hora a una hora. En la Plaza Garagartza se mantendrá la media hora.



Urduri?

Bai, ezin esan ezetz. Lasai mantentzen saiatzen bazara ere, jendeak une oro gogoratzen dizu, entrenamenduetan, lagunek eta jendeak kalean edo lanean... horretaz hitz egiten baitizute. Eskertzen duzu, animatzen zaituztelako, baina urduri ere jarren zara. Ezinezkoa da ekiditea.

Nola ari zarete prestatzen egun handi hori?

Egun handia izango dela garbi dugu. Prestaketa... beno, gogor. Aurkaria gogorra dugu El Salvador. Gainera, ez da nahikoa ongi jokatzera, orain irabazi egin behar da. Eta irabaztera aterako gara. Taldearentzat une historikoa da. Ordizia ez da inoiz horrelako egoera batean egon eta hortaz kontziente gara.

Egindako ibilbidearen emaitza dela esango zenuke?

Bai. Aldaketak izan dira, bai taldearen filosofian, bai jokatzeko eran, Aspaldi egindako apustuen, eta kirol ibilbide baten emaitza da. Final hau bezalaxe, aurreko urteko "finala", liga irabaztekoan egon ginekoea. Orain unea disfrutatatu behar dugu.

Ampo Ordizia errugbi taldeak une istorikoa bizi du. El Salvador taldearen aurka Errege koparen finala jokatuko du hilaren 22an Palentzian. Iñaki Suso ordiziar jokalariek azaldu duenez, "oraingo egoera ibilbide luze baten emaitza da".

Nola eragingo dizu finala jokatzeari? Ordiziarra izanda...

Txikitatik ari naiz talde honetan. Inoiz ez duzu imajinatzen honetara iritsiko zarela. Baina iritsi da. Ordiziarra izanda, niretzat oso garrantzitsua da. Baina baita kanpoko jokalarientzat ere. Horiek ere kutsatu ditugu eta dagoeneko, ordiziar izaeraz ere badute zerbait. Beraientzako ere gauza handia da Ordizia izena final horretara eramatea.

Jarraitzaileen artean gauzak aldatu egin dira. Orain jende gehiago etortzen da partiduetara...

Normala da. Zenbat eta gorago joan, orduan eta jende gehiago etortzen da. Gainera, gure ikusleek kirola errespetatzen dute, hori diote behintzat beste taldekoek ere. Finalera ere jende asko joango da, eta handia izango da zaleek Palentzian biziko dutena. Guk hori galdu egingo dugu, eta pena da, baina ez nuke inolaz ere nire tokia ikusleenagatik aldatuko. Ikaragarria da finaleko partiduan zelaian egotea.

Irabazten baduzue zer?

Irabazten badugu... ba ez dakit. Ez dakit zer gertatuko den. Ospatu egingo dugu. Zelaian, aldageletan, autobusuean, herrian... Hurrengo eguna ere gogorra izango da. Sekulako ajea (barreak). Nik jada eskatu dut baimena lantokian. Hala ere, garrantzitsuen maite dugun jendearekin, taldekideekin, jarraitzaileekin eta ordiziarrekin ospatzea da.

Errepikatzeko gogorik?

Zer finala? Oraintxe sinatuko nuke hau urtero bizitzeko. Lehena da, baina ez dauka zertan azkena izan. Noski, berriro horrelako egoera bat bizitzea edozein kirolariren ametsa da. Gainera, ibilbide honetan, orain arte gertatu diren gauzen artean ez nuke ezer aldatuko.■



Palentziara bidean Koparen bila



01

agenda >>>>



02



03

Asteazkena 18 miércoles

Barrena Kultur Etxean 18:30ean. BEROA-Gipuzkoako Harrera familien Elkartearen hizaldi-tailerra.

Charla taller de la Asociación de familias acogedoras de Gipuzkoa.

Osteguna 19 jueves 01

Barrena Kultur Etxean 17:30ean KIDAM MAGOA, 3-10 urte bitarteko haurrentzat. Hizaro Euskara Elkarteak antolatuta.

Osteguna 19 jueves

Emakumeen korrika taldea sustatzeko bilera informatiboa D'elikatuzen 19:00etan (Kirol eta Berdintasun Sailak).

Reunión informativa para fomentar el deporte entre las mujeres.

Osteguna 19 jueves

Irakur tailerra Barrenan 19:00etan Irati Gokoetxea idazlearekin.

Ostirala 20 viernes 02

Antzerki garaia. "Aquí va a pasar algo" antzezlan. Herri Antzokian 22:15etan.

Obra de teatro "Aquí va a pasar algo". Herri Antzokia 22:15h.

Asteazkena 25 miércoles 03

Jon Maia bertsolari eta idazleak 70. hamarkadan espainiar estatutik Euskal Herrira etorritako bere familiaren esperientzian oinarrituta, kultur ezberdinen elkarbizitzaz hitz egingo digu.

El bertsolari y escritor Jon Maia nos hablará de la convivencia entre diferentes culturas basándose en la experiencia de su familia llegada del estado español a Euskal Herria en la década de los 70.

Habrà servicio de traducción y guardería.

Osteguna 26 jueves

Barrena Kultur Etxean 18:30ean "Memoriaren bidea: emakumeen historia, emakumeekin egindako bidea" Aritz Rodriguez eta Nire Eliasekin. Antolatzailea: Kimetz Emakumeen Elkarte.

Charla organizada por Kimetz: "El camino de la memoria. Una historia con/y de mujeres". En Barrena Kultur Etxea a las 18:30h.■